



Deusto

Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea

LANKIDETZA HITZARMENA

SINATU DUTENAK:

BASAURIKO UDALA

ETA

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO
GIZARTE ETA GIZA FAKULTATEA

Basaurin, 2023ko otsailaren 6an.

BATZARTU DIRENAK

ALDE BATETIK,

ASIER IRAGORRI BASAGUREN
jauna, Basauriko (Bizkaia) alkatea,
jakinarazpenetarako helbidea Kareaga
Goikoa kaleko 52an (48970 P.K.) duena
eta P-4101900-D IFK zenbakia duena.

ETA BESTETIK,

FRANCISCO JAVIER ARELLANO
YANGUAS jauna, DEUSTUKO
UNIBERTSITATEaren izenean eta
haren ordezkari, IFK. R-4868004-E
zenbakia duena, jakinarazpenetarako
helbidea Unibertsitate etorbideko 24.ean
duena (PK 48007), Deustuko
Unibertsitateko (Bilbao) Gizarte eta
Giza Zientzien Fakultateko dekanoa.

Bi alderdiok elkarri aitortzen diote
gaitasuna eta ahalmena lege eta bidez
dutela HITZARMEN hau egileste eta
zera

CONVENIO DE COLABORACIÓN

SUSCRITO ENTRE:

EL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
BASAURI

Y

LA FACULTAD DE CIENCIAS
SOCIALES Y HUMANAS DE LA
UNIVERSIDAD DE DEUSTO

En Basauri, a 6 de febrero de 2023.

REUNIDOS

DE UNA PARTE,

Sr. D. ASIER IRAGORRI BASAGUREN,
Alcalde de Basauri (Bizkaia), con
domicilio a efectos de notificaciones en la
calle Kareaga Goikoa, 52, (C. Postal
48970) y C.I.F. P-4101900-D.

DE LA OTRA,

Sr. D. FRANCISCO JAVIER
ARELLANO YANGUAS, en nombre y
representación de la UNIVERSIDAD DE
DEUSTO, con CIF número R-4868004-
E y domicilio en Avenida de las
Universidades, 24 – 48007 Bilbao, en su
calidad de decano de la Facultad de
Ciencias Sociales y Humanas de la
Universidad de Deusto (Bilbao).

Ambas partes se reconocen mutuamente
capacidad y legitimación para otorgar
el presente CONVENIO y

San Añu

DIOTE:

I.- Basauriko Udalak herriko guztientzako kulturazko aisiaren eskaintza zabaltzeko gogoia duela.

II. Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Fakultateak, DeustoBide – Herritartasun Eskolaren barruan, prestakuntza iraunkor zabaleko programa antolatu eta garatu ahal duela, “Kultur Aisia Unibertsitatean” deritzana, hain zuzen ere.

III. Aurreko guztia kontuan izanda, bi alderdiok HITZARMENA sinatzeko asmoa dutela, hurrengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Programak bi ikastaro izango ditu, hamabosna ordukoak eta 2023ko martxotik 2023ko maiatzaren bitartean egingo da.

BIGARRENA. - 2022-2023 ikasturteko bigarren sei hileko eskaintza hauxe izango da:

1. ikastaroa: Gatazka garaikideak eta bake negoziatua (astelehena).

2. ikastaroa: Artearen maisulanak berriro ezagutzen (asteazkena).

HIRUGARRENA.- Nahi duen guztiak programa bere esku izango du, baina Basaurin erroldatuek lehentasuna izango dute.

EXPONEN

I.- Que el Ayuntamiento de Basauri está interesado en ampliar la oferta de ocio cultural para sus conciudadanos.

II.- Que el La Facultad de Ciencias Sociales y Humanas de la Universidad de Deusto, en el marco de DeustoBide – Escuela de Ciudadanía, está en disposición de gestionar y desarrollar un programa de formación permanente abierta, denominado “Ocio Cultural Universitario”.

III.- Que en atención a lo expuesto, es intención de ambas partes firmar un CONVENIO, el cual se regulará por las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- El programa constará de dos cursos, de 15 horas de duración, a desarrollar entre los meses de marzo de 2023 y mayo de 2023.

SEGUNDA. - La oferta para el segundo semestre del curso académico 2022-2023 es la siguiente:

Curso 1: Conflictos contemporáneos y paz negociada (lunes).

Curso 2: Re-descubriendo obras maestras del arte (miércoles).

TERCERA.- El programa está abierto a toda persona que lo desee, con preferencia para aquellas empadronadas en Basauri.

Jane Auk



LAUGARRENA.- Programa egokiro antolatzeke eta kudeatzeko, Deustuko Unibertsitateak, DeustoBide – Herriartasun Eskolaren barruan, eginbehar hauek hartzen ditu bere gain:

1.- Ikastaroak aurrera eramateko beharrezkoak diren administrazio eta koordinazio lanak egitea, matrikulazioari dagozkionak izan ezik, hauek Basauriko Udaleko Kultura arloak egingo baititu bertako langileekin.

2.- Ikastaro bakoitzerako irakasleak jartzea.

3.- Ikastaroetan parte hartzen dutenei ikastaroa egiteko behar diren material didaktikoak ematea.

4- Informazio liburuxka prestatzea eta inprimatzea.

5.- Ikastaroen berri zabaltzea.

6.- Programaren berri zabaltzen laguntzea, hala eskatuz gero, horretarako ekintzetan parte hartuz, hala nola, udalerriko elkarteekin egiten diren bileretan, etab.

7.- Basaurin bizi diren prestakuntza programetako ikasleei programa honen berri ematea.

BOSGARRENA.- Beste aldetik, Udaletxeak ardura hauek hartzen ditu bere gain:

1.- Deustuko Unibertsitateari 5.970,00 € (bost mila, bederatziehun eta hirurogeita hamar euro) ordaintzea lehenengo sei hilekoko programa kudeatu eta emateagatik.

CUARTA.- Para la adecuada organización y gestión del programa, la Universidad de Deusto, en el marco de DeustoBide – Escuela de Ciudadanía, se compromete a:

1.- Desarrollar las tareas tanto administrativas como de coordinación necesarias para el desarrollo de los cursos, a excepción de lo relativo a la matriculación, la cual se realizará en el Área de Cultura del Ayuntamiento de Basauri y con el personal del mismo.

2.- Proporcionar el profesorado necesario para cada curso.

3.- Proporcionar a los participantes en los cursos los materiales didácticos necesarios para el correcto seguimiento de los mismos.

4.- Elaborar un folleto informativo y realizar la impresión del mismo.

5.- Realizar la difusión de los cursos.

6.- Colaborar en la difusión del programa mediante la participación en cuantas acciones sea solicitada su presencia, tales como reuniones con asociaciones del Municipio, etc.

7.- Difundir el programa entre los alumnos de programas de formación domiciliados en Basauri.

QUINTA.- Por su parte, el Ayuntamiento se compromete a:

1.- Abonar a la Universidad de Deusto la cantidad de 5.970,00 € (cinco mil novecientos setenta euros) por la gestión e impartición del programa correspondiente al primer semestre.

Jose Arilla

Diru kopuru hori BEZetik salbuetsita dago, abenduaren 28ko 37/92 Legearen 20.1 artikulua arabera.

Ordainketa Deustuko Unibertsitatearen izenean egingo da lehenengoaren seihilekoko ikastaroa amaituta hilabeteren barruan, 0182 erakundean, 1290 bulegoan, 36 KD, 0016521104 kontu zenbakian (3334 kostu zentroa).

2.- Ikastaroen berri zabaltzea udalerriko herritarren artean.

3.- Programa emateko leku eta ikus-entzunezko bitarteko egokiak jartzea.

SEIGARRENA.- Ikastaro bakoitzean 63 ikasle onartuko dira gehienez.

ZAZPIGARRENA - Matrikularen zenbatekoa programaren publizitate guztian agertuko da.

ZORTZIGARRENA.- Batzorde misto bat sortuko da, Arloko zinegotziak eta teknikariak osatua, udalaren aldetik, eta Aisiazko Ikaskuntzen Institutuko zuzendariak eta Helduen Prestakuntzako Programen koordinatzaileak osatua, bestetik. Batzorde horren eginkizuna izango da hitzarmenak irauten duen bitartean sor daitekeen edozein eztabaida edo gatazka egoerari irtenbidea ematea.

La citada cantidad se encuentra exenta de I.V.A., en virtud del artículo 20.1 de la Ley 37/92 de 28 de diciembre.

El abono se realizará a nombre de la Universidad de Deusto una vez finalizado el curso del primer semestre y en un plazo no superior al mes desde la finalización de estos, en la entidad 0182, oficina 1290, D.C 36; número de cuenta: 0016521104 (Centro de coste 3334).

2.- Favorecer la difusión de los cursos entre los vecinos del Municipio.

3.- Proporcionar un espacio adecuado así como los recursos audiovisuales necesarios para la impartición del programa.

SEXTA.- El límite de admisión por cada curso será de 63 alumnos máximo.

SÉPTIMA - El importe de la matrícula se reflejará en toda la publicidad del programa que se realice.

OCTAVA.- Se creará una Comisión Mixta integrada por el Concejal y Técnico del Área por parte del Ayuntamiento y por la Directora del Instituto de Estudios de Ocio y el Coordinador de los Programas de Formación Permanente. Dicha Comisión tendrá como objeto resolver cuantas controversias o situaciones de conflicto puedan ocurrir durante el desarrollo del Convenio.

Joaquín Arilla

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen duten egunean sartuko da indarrean eta 2023ko ekainaren 1 arte hala egongo da.

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak ondorengoak izango dira:

- Alderdiek bera suntsiaraztea erabaki dutela.
- Aurreko klausuletan hartu dituzten betebeharrak ez dituela parte hartzen duten alderdietako batek bete.

Hitzarmena arinago deuseztatzen bada, ikastaroa bertan behera geratuko da. Ikastaroa hasita badago, egindako jardueren zati proportzionala ordaindu beharko dio Udalak Deustuko Unibertsitateari.

HAMARGARRENA.- Bai Deustuko Unibertsitateak, bai Basauriko Udalak konpromisoa hartzen dute datuak babesteko araudiaren ondorioz sortutako betebeharrak, bereziki, 95/46/CE zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen pertsona fisikoen datu pertsonalen babesari eta datu horien zirkulazio askeari dagokien 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 Araudia betetzekoa.

Hitzarmen honen ondorioetarako, "datu pertsonalak" izango dira pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruz bildu, prozesatu eta transmititutako informazio oro. Datu pertsonalak zaindu eta isilpean gorde beharreko informaziotzat hartuko dituzte bi aldeek.

Jose Anll

NOVENA.- El presente Convenio de Colaboración entrará en vigor el día de su firma y permanecerá en vigor hasta el día 1 de junio de 2023.

Será causa de resolución del presente Convenio:

- *Acuerdo de las partes para la resolución del mismo.*
- *El incumplimiento por parte de una de las partes intervinientes de las obligaciones contraídas mediante las cláusulas anteriores.*

La extinción anticipada del convenio comportará la suspensión del curso. Si éste ya se hubiera comenzado, el Ayuntamiento deberá abonar a la Universidad de Deusto la parte proporcional de las actividades ya desarrolladas.

DECIMA.- Tanto la Universidad de Deusto como el Ayuntamiento de Basauri se comprometen al cumplimiento de las obligaciones derivadas de la normativa de protección de datos y, en particular, del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

A efectos del presente convenio, se entenderá por "datos personales" toda información recopilada, procesada o transmitida relativa a una persona identificada o identificable. Los datos personales se considerarán información sujeta a las obligaciones de salvaguarda y confidencialidad por ambas partes.

Aquellos que suscriben y firman este convenio autorizan a las partes al

Hitzarmen hau sinatu eta izenpetzen dutenek baimena ematen diete aldeei hitzarmenean ageri diren eta araudia indarrean dagoen bitartean jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko, kontratuzko harreman hau kudeatzeko. Datuen titularrak eskubidea izango du datu horietara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, haien erabileraren aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta, halakorik izanez gero, erabaki automatizaturik ez onartzeko. Horretarako, idatziz jo beharko du titularrak hitzarmen honetan bi aldeek adierazten duten helbidera.

HAMAIKAGARRENA.- Lankidetzaz hitzarmen hau aplikatu eta interpretatzean sor daitezkeen eztabaidak Ohiko Epategietara edo arbitraje Gortera eramateari uko eginten diote espreski izenpetzaileek. Izan ere, izan litezkeen auziak alderdiek onartutako konpondibeen topaketa bidez ebartziko dira, helburuen eta erakundeen izaera publikoaren arteko lehiaren arabera.

Eta euren adostasuna adierazteko bi aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, hiru aletan eta ondorio bakarrerako, Basaurin, 2023ko otsailaren 6an.

Fdo./Izpta.: Asier Irigorri Basaguren
(Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Basauri / Basauriko Udaleko alkate-udalburua)

tratamiento de sus datos personales incluidos en el mismo junto con los que se obtengan mientras esté vigente, con la finalidad de llevar a cabo la gestión de esta relación contractual. El titular de los datos podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento, portabilidad de datos y, en su caso, a no ser objeto de decisiones automatizadas, dirigiéndose por escrito a la dirección de las partes indicadas en este convenio.

UNDECIMA. - Los firmantes renuncian expresamente a someter cuantas controversias pudieran generarse de la aplicación e interpretación del presente Acuerdo de colaboración a Tribunales ordinarios o a Corte de arbitraje alguna, debiendo resolverse los posibles litigios mediante encuentro de soluciones aceptadas por las partes en virtud de la concurrencia de objetivos y el carácter público de las instituciones.

Y en prueba de conformidad firman las partes el presente convenio, por triplicado y a un solo efecto en Basauri, a 6 de febrero de 2023.

José Arellano



Fdo./Izpta.: Francisco Javier Arellano
Yanguas
(Decano de la Facultad de Ciencias Sociales y Humanas /Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Dekanoa)

